

'Kapulana bat zintzilik' ikuskizuna-erakusketa Eskoriatzako campusean urriaren 26tik 30era

2015/10/26

Urriaren 26tik 30era, *Kapulana bat zintzilik* erakusketa jarriko da ikusgai Eskoriatzako campuseko klaustroan. **Erakusketaren ardatza izango da Miren Amuriza bertsolaria eta fakultateko irakasleak 29an, eguerdiko 12:30etan, eskainiko duen ikuskizuna.** Modu sortzaile eta parte-hartzailean, *Kapulana bat zintzilik* ikuskizunak aukera emango du hitz egiteko Mozambikeri buruz edo kooperazioari, nekazaritzari, haurtzaroari eta hizkuntzari buruz. Mundukide fundazioak eta Lanku bertso zerbitzuak antolatu dute elkarlanean ikuskizun ibiltari hau.

Kapulanak dira Mozambikeko emakumeen oihal koloretsuak; soineko moduan, hurrei lepoan eusteko, jana biltzeko edota etxeak apaintzeko baliatzen dituztenak. Hain dira erabilera anitzekoak, ezen edozer aurki baitaiteke zapi handion estalpean. Emanaldi honetan, kapulana bat zabalduko dugu eta bertan gordetako kantu, kontu eta irudiak aterako. Mozambikeko lurrazalaren historiatik hasita, emakumeen eskuetako azal zimurrak irakurtzeraino egingo dugu bidaia. Tarte horretan kooperazioaz, nekazaritzaz, haurtzaroaz edota hizkuntzaz arituko da Miren Amuriza bertsolaria eta Humanietat eta Hezkuntza Zientzien Fakultatako irakasleak, Eider Eibarren ilustrazioak lagun hartuta; hala bertsoz, nola ipuinez.

Ikuskizuna ez da abentura baten kronika, ezta Gobernu Kanpoko Erakunde baten hitzaldia ere; hausnarketa txikiz eta galdera handiz josiriko kontakizuna baizik. Hala nahi duenarentzat, bere gogoetak eskegitzeko oihal zabala; horixe da *Kapulana bat zintzilik*. Ikuskizunak 40-60 minutuko iraupena du.

Egitasmoaren antolatzaileak dira Mundukide fundazioa eta Lanku bertso zerbitzua. Mundukide Gobernu Kanpoko Erakundeak erakusketa honekin ospatu nahi izan du bere 15. urteurrena.



Miren Amurizak ikuskizuna eskainiko du.